

NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
EUSKARA ZERBITZUA

**NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
BATZAR OROKORRA**

2025eko uztailaren 23an arratsaldeko 18:30etan Leitzako Udaletxeko Batzar Aretoan, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Batzar Orokorra bildu da, Aintzane Arraiza Nafarroko Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakaritzapean.

BERTARATUAK:

Joan Mari Beasain, Aranoko udaleko ordezkaria
Maider Amantegi, Leitzako udaleko ordezkaria
Olatz Telleria , Aresoko udaleko ordezkaria
Anne Oyarzun, Odietako udaleko ordezkaria
Patxi Xabier Iturriotz, Imozko udaleko ordezkaria
Asier Arsuaga, Araizko udaleko ordezkaria
Joseba Xabier Artzeluts, Larraundo udaleko ordezkaria
Xabat Ilarregi, Leitzako udaleko ordezkaria
Juan M^a Irastorza, Lekunberriko udaleko ordezkaria

IDAZKARIA: Lucia Beloqui Iriarte.

GAI ZERREDA

1.- Azken batzarreko akta onartzea.

Lehendakariak aipatzen du deialdiarekin batera aurreko batzarreko akta bidali zela , 2025eko otsailaren 19koa , aktaren onespenera eragozpenen bat dagoen galdetzen du eta bildutakoek aho batez onartzen dute otsailaren 19ko akta

2.- 2024ko kontuan. Hasierako onespenera.

Lehendakariak aipatzen du jada 2024ko kontuak bukatuak daudela 1990/6 Toki Administrazioako Foru Legearen 273. artikulua jarraituz onartu behar direla.

2024. urtean onartu diren gastuak 395.289,17 eurokoak izan dira eta horietatik ordainduak gelditu direnak 366.844,77 euro. Aldiz onartu diren sarrerak 429.277,41 eurokoa izan dira eta horietatik kobratutakoak 429.277,41 euro.

Sarrerak eta kapituluka banatzen dira modu honetan, hirugarren kapitulutik jaso dira lehen sarrerak, 2.868.50 eurokoak, mankomunitatean antolatutako ihardueratan parte hartzeagatik kobratzen diren tasak dira sarrera hauek. Eta bigarren sarreran beste entitateek mankomunitateari egiten dizkieten ekarpenak dira, bai Nafar Gobernutik bai mankomunitatea osatzen duten udaletatik, osotara 426.410,91 eurokoak.

Hortaz urteko emaitza, onartuko gastu eta sarreren arteko diferentzia 33.988,24 euro positiboan da.

Langileen gastuak 179.791,39 eurokoak izan dira, gastu arruntak 126.375,02 eurokoak (hemen sartzen dira bulegoetako gastu orokorrak argia, internet, informatika zerbitzuak, normalizazio iharduerak) eta azkeneko kapituluaren transferentzia arruntaren kapituluaren 89.122,76 euroko gastua dago onartua. Kapitulu honetan sartzen dira mankomunitateak beste entitateei egiten dien ekarpenak, hots euskaltegiei, euskara ikasleei, kontseilua eta beste...

2024. urteko tesoreria gerakina 114.090,23 eurokoa izan da.

Kontuan aztertuta Lekunberriko Udaleko ordezkaria den Juan M^a Irastorza galdetzen du beste urtetan horrela ez zelako, zergatik 2024. Urtean Leitzako euskaltegiari ekarpena altuagoa egin zaion AEKri baino. Zalantza hau argitu eta emailaz erantzun zaie bildutakoei.

1990/6 Toki Administrazioako Foru Legearen 273. Artikuluaren arabera Iparraldeko Euskara Mankomunitateak ekaineko batzarrean eta hasiera batez hala badagokio onartuko ditu 2018. Urteko kontuak eta mankomunitatea osatzen duten udalen tabloietan jende aurreko epean egonen da 2024ko kontuen espedientea aztergai 15 egun baliodunetz. Alegazioak aurkeztu ezean behin betikoz onartuko dira hurrengo ohiko batzarrean.

Hortaz bildutakoek aho batez hasierako onespina ematen diote Iparraldeko Euskara Mankomunitateko 2024ko kontuen txostenari eta agintzen dute erabaki hau mankomunitatea osatzen duten udaletako iragarkia taulan egotea jende aurrean 15 egun baliodunen epean.

3.- Euskara teknikarien bulegoak. Garbiketarako ekarpena.

Lehendakariak azaltzen du kontuetan ikusi den bezala 3700 euroko ekarpena egiten die mankomunitateak euskara teknikarien bulegoak dituzten udalei eta idazkaritza eramaten den udalera.

1000 euro lehenengo kasuan eta 700 euro bigarren kasuan.

Bulegoak Larraun, Ultzama eta Leitzako udaletan egonik 1000 euroko ekarpena egiten zaie aipatutako udalei.

Kopuru hau eguneratu gabe dago aspalditik eta Ultzamako udaleko ordezkariak aurreko batzar batean komentatu zuen igo beharko litzakeela ekarpen hori.

Bildutakoek eztabaidatzen dute zenbat igo beharko litzatekeen, lehendakariak aipatzen du seguru ez duela gogoratzen baina, 1.200 eurori buruz hitz egiten zuela uste Ultzamako ordezkariak. Larraungo eskualdearen kasuan hango ordezkariak aipatzen dute bertako euskara teknikariaren kasuan, 4 egun ematen dituela Larraungo udalean eta bakarra Betelukoan eta hortaz zaila ikusten dutela gastu hori kontabilizatzea.

Bildutakoek eztabaidaren emaitza da galdetzea alde batetik Ultzamako udalari zenbateko igoera aurreikusten duten eta bestetik Leitzeta Larraungo udalen kasuan ere hango kontu hartzaileei galdetu ea informazioa lortzerik dagoen hurrengo batzarrean eta 2026ko aurrekontuari begira partida horren aurreikuspena eguneratu ahal den.

4.- Euskararen aldeko crowdfundinga.

Lehendakariak azaltzen du, iritsi zitzaiola 2026. Urteko Oinez egitasmoaren baitan Jalgi Hadi dokumentala burutzeko crowdfunding kanpaina abiatu zutela, egun kanpaina itxita dago, baina mankomunitateak ez du aurrekontuak halakoak diruz laguntzeko partidarik adierazten du lehendakariak eta partida bat horretara bideratzeko proposamena luzatzen die bildutakoei.

Bildutakoek eztabaidatzen dute agian udalek ekarpenak egiteko baliabide gehiago dituztela eta mankomunitateak bideratzen badu dirua ekimenek diru gutxiago jaso ahal dutela, bestetik ere mankomunitatetik ekarpena egitea, mankomunitatearen zigilua jartzea da..

Eztabaidaren ondoren bildutakoek aho batez hartzen duten erabakia honakoa da, 2026. Urteko aurrekontuan 2000 euroko partida sortzea horrelako ekimenei ekarpenak egiteko.

Bestetik ere erabaki dute bildutakoek lehendakariak aipatutako kopuru horretatik eskaera bat baino gehiago egongo balira, 1000 euroko gastu langa izango lukeela erabakitzeko, hots ekarpena 1000 euro baino gehiagokoa izango balitz batzarrak erabaki beharko lukeelako.

5.- Langileen eguberri otamena.

Mankomunitateko lehendakariaren proposamena da eguberrietan otamen bat ematea langileei, Errigorren saskia adibidez. Bildutakoek proposamena ontzat ematen dute eta hortaz aipatutako gastua, gastu orokorretik egitea.

6- Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Lehendakariak orain arte onartu dituen ebazpenen zerrenda bidali da bileraren dokumentazioarekin batera, hurrengo batzarean haien inguruko informazioa emango du lehendakariak.

7- Oharrak eta berriemateak.

Lehendakariak gogoratzen du Ultzamaldeko euskara teknikariaren lanpostua bete behar dela behin Felix Altzalei 2026ko apirilean behin betikoz erretiroa hartzen duenean, hortaz urrian burutuko en hurrengo batzarrean hasiera emango zaio prozedurari.. Batzarre horretan ere 2026ko aurrekontua aukeztuko da.

Langileek fitxatzeko aplikazioaren inguruan Fitxanet enpresak bidali du informazioa eta aurrekontua,. Aplikazioa euskareaz izateko aukera dagoela eskeintzen dute, gastua hilabetero 20 eurokoa izango zen langile bakoitzagatik eta 80 euro aplikazioa martxan jartzeagatik.

Bildutakoek ez dute garbi ikusten informazio hau bidali duen lehen enpresarekin harremanetan jartzea eta software euskaraz izateari garrantzia ematen dioete. Beste enpresekin jarri ahal da mankomunitatea harremanetan baldintza hori betetzen dutenak, baina lehenik jakin beharko litzateke ea langileek ados dauden proposamen honekin, egokia ikusten dute haien egunerokotasunean eskeintzen dituen ezaugarriak kontutan hartuz, adibidez nominak bertatik jasotzea...Hortaz langileei kontsulta egingo zaie.

Bertsolari eskolaren kanpainaren inguruan, euskara teknikariek bilera izan zuten atzo eta informazio bezala helarazi diote lehendakariari, agian komenigarria dela mankomunitateak Bertsolari elkartearkin zuzenean lankidetzaz hitzarmena sinatzea, eta ez orain bezala eskualdeko egitea kontratazioa, horrela orokorretik egingo litzateke gastua eta ondoren eskuadeak ordainduko lioke mankomunitateari. Horrela egiteko proposamena luzatu diote teknikariek lehendakariari. Ez da garbi gelditzen horrela egiteak ze onurak dituen. Idazkariak adierazten du kontratuen foru legea betetzeko kasu honetan kontratazio zuzena izanik, justifikatu ahalko litzateke empresa bakarra dela horrelako zerbitzua ematen duena.

Ongi aztertuko da gaia eta hurrengo batzarrean erabakia hartu, 2026. Urteko aurrekontuari begira.

8.- Eskariak eta galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 19:35 direnean bilera amaitutzat ematen du lehendakariak, eta idazkariak hala ziurtatzen du.

